

Baratxurizko antibiotikoa

Ezaguna da baratxuriak odolaren zirkulazioari mesede egiten diola, baina horrez gain antibiotiko ona ere bada. Bostongo University Medical Center erakundeak ja-



Ezaguna da baratxuriak odolaren zirkulazioari mesede egiten diola, baina horrez gain antibiotiko ona ere bada.

kinarazi dutenez, antibiotikoen kontrako erresistentzia duten bakterioak ere hil egiten ditu baratxuriak. Jerome Klein zientzilaria dioenez, baratxuri-estraktuak bakterioak garatzea eragozteaz gain suntsitu ere egiten ditu. Landareari usain berezia ematen dion allizina izeneko substantzia da efektuaren eragilea.

Lurreko iodo-kantitatea

Gutxitan hartzen da kontutan, baina lurra duen iodo-kantitatea garran-

tzitsua da tiroidearen ztat eta, oro har, osasunarentzat. Hori da Alemaniako Osasun Ministeritzak gogorarazi duena. Hango lurretan izan ere, iodo gutxi dago eta iodoa nahitaezkoa da tiroide guruinak ongi funtziona dezan. Elikagaiekin hutsune hori ez da behar bezala betetzen, eta, ondorioz, Alemaniako emakume haurdunek edo bularra ematen ari direnek pastiletan hartu behar izaten dute iodoa.

Iodo falta kronikoa denean hipertiroidea izaten da eta ondorioz arnasketan, jatean ezta rrian eta abarretan arazoak izaten dira. Alemanian, esaterako, berrogei jai berritik baten tiroidean arazoak izaten ditu, eta horren eraginez eskeletoa osatzen eta garuna heltzen atzerapenak ere bai.

Koloniako unibertsitateko Harald Schicha doktoreak elikaduran iododun gatza legez ezartzea komeni dela adierazi du.

Oxigenoa minbiziaren aurka

Minbiziaren kontrako borrokan oxigenoak irtenbide interesgarria eskain dezakeela uste dute ikerlariak. Frogatu ahal izan dutenez, kimioterapiaren edo erradioterapiaren eragina deuseztu egiten da oxigenoa falta denean. Bostongo Dana-Farber

Cancer Institute erakundeak diharduen Beverly Teicher eta bere taldekoek oxigeno gutxiko zonetara perfusioz oxigenoa sartzea proposatzen dute.

Alderantzizko bidea, oxigeno gutxi dagoenean baino aktibatzen ez diren sendagaiak erabiltzea da. Genetikoki aldatutako bakterio anaerobioaz baliatzen da, tumoreen kontrako sendagaia aktibatzen duen entzima produzi-tzen duelako. Organismora injektatutako bakterioa, oxigeno gutxiko tumoreetan garatzen da eta orduan entzima aktibatzailea askatzen du. Minbiziaren kontrako sendagaia CD 1954 izenekoa da, eta nitrorreduktasa entzima dagoenean baino ez da zito toxiko bihurtzen. Stanford-ko unibertsitateko Martin Brown-en taldeak bakterioa tumoreetan baino ez dela garatzen frogatu du. Orain CD 1954 sendagaia eranstea besterik ez da falta, bizidunengan aktibatu egiten dela egiaztatu ahal izateko.

Hortzetarako material berria

Ionomero izeneko beiraz egindako zementu berri bat zenbait kasutan probatzen hasiak dira dentistak, normalean erabiltzen dituzten amalgama



Ionomero izeneko beiraz egindako zementu berri bat zenbait kasutan probatzen hasiak dira dentistak, normalean erabiltzen dituzten amalgama eta konpositeen ordez.

eta konpositeen ordez. Produktua itsasteko hortzak edo haginak ez dago esmerilaz tratatu beharrik, eta hori abantaila handia da. Dena den, zementu berri honen ahoan ohizko materialek baino gutxiago irauten du.

Esnea eta hezurak

Menopausia izandako 250 andereztertuta, medikuntza ingeles baten frogatu duenez 25 urte bete aurretik eguneroko baso bat esne baino gehiago edan dutenek hezurren dentsitate handiagoa dute, esnea eguneroko normal edan ez dutenek baino.

